

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

3264

AGINDUA, 2019ko ekainaren 12koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez eskola-garraiorako banakako dirulaguntzetarako deialdia egiten baita desgaitasun fisikoa, psikikoa edo sentsoriala duten ikasleentzat, baldin eta eskolatuta badaude etxebizitzaren arabera dagokien ikastetxe publikoan edo Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak esleitutako itunpeko ikastetxe pribatu batean eta ezin badute saileko eskola-garraioa erabili.

Hezkuntza Sailak ikasleak garraiatzeko zerbitzua antolatzen du ikasturte oro, hezkuntzaren zerbitzu osagarri modura. Zerbitzu horrek zenbait ibilbideren kontratazioa hartzen du barne; honako hauek hartzen dira kontuan ibilbide horiek zehazterakoan: ikasleen bizilekutik ikastetxera dagoen distantzia eta ikasle-kopurua.

Badira ikasle batzuk desgaitasun fisiko, psikiko edo sentsorial bati lotutako hezkuntza-premia bereziak dituztenak, eta horiek ezin dute eskola-garraioa erabili, bai ibilbideak edo garraioa ez daudelako egokituta, bai ikastetxean ez dagoelako garraio antolaturik. Kasu horietan ibilgailu partikularra edo garraio publikoa erabiltzen dute egunero ikastetxera joateko. Eskola-garraiorako banakako dirulaguntzetarako deialdi honen helburua da ikastetxerako joan-etorrien kostua finantzatzea, ez dadin izan zailtasun gehigarri bat, ezta beste kostu bat ere, ikasle horiek ikastetxe publiko batean edo Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak esleitutako ikastetxe pribatu itunpeko batean eskolatuta badaude.

Hori dela eta, laguntzen deialdi hau egiten da. Hezkuntza Sailaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren barruan sartzen da deialdi hau. Plana Hezkuntzako sailburuaren 2019ko martxoaren 15eko Aginduaren bidez onartu zen, eta Eusko Jaurlaritzaren egoitzan elektronikoan argitaratuta dago; hona hemen helbidea:

http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/pes_plana/eu_def/adjuntos/PES_2019_e.pdf

Gainera, izaera orokorrekin, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokoarean eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan (Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko Erregelamendua onartzen du) ezarritakoaren arabera arautuko dira. Horiek horrela, bat etorriaz azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko testu bateginaren VI. tituluan eta VII. tituluko III. kapituluan ezarritako xedapenekin (Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioaren diru-laguntzak arautzen dira titulu horretan) eta aplikazio orokorreko bestelako xedapenekin, Euskal Autonomia Erkidegoko 2018ko Aurrekontu Orokorrek onartzeko abenduaren 22ko 5/2017 Legearen bidez onartutako kredituak aintzakotzat hartuta –2019ko ekitaldirako luzatuak– aurrekonturik badagoenez, eta aplikatzekoak diren gainerako xedapen orokorren arabera, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Deialdiaren xedea.

Agindu honen xedea da eskola-garraiorako banakako dirulaguntzen deialdia egitea desgaitasun fisiko, psikiko edo sentsoriala duten ikasleentzat, baldin eta 2019-2020 ikasturtean ikastetxe publikoetan edo Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak esleitutako itunpeko ikastetxe pribatuetan matrikulatuta badaude eta ezin badute Hezkuntza Sailak antolatutako eskola-garraioa erabili.

2. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

Agindu honetan araututako laguntzak finantzatzeko, 3.430.000 euro bideratuko dira.

3. artikulua.– Laguntzen onuradun izateko betebeharrak eta betebeharrak egiaztatzea.

1.– Deialdi honetara aurkez daitezke desgaitasun fisiko, psikiko edo sentsorial bat duten ikasleak, baldin eta 2018-2019 ikasturtean, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan jasotako debekuetako batean ez egoteaz gain, eskakizun hauek betetzen badituzte:

a) 2019-2020 ikasturtean etxebizitzaren arabera edo ibilbidearen arabera dagokion ikastetxean matrikulatuta egotea, edo Hezkuntza Administrazioak esleitutako ikastetxean.

b) Ikaslearen etxebizitzatik ikastetxera dagoen distantziak bete egin beharko du Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako ikaslearen eskola-garraioari –garraioaren arloan eskumenak dituen Sailak finantzatutakoari– buruzko maiatzaren 19ko 69/2015 Dekretuaren 5. artikuluko c letran ezarritakoa. Distantzia neurtzeko, ikaslearen bizilekutik ikastetxerako ibilbide laburrena hartuko da erreferentziazat.

c) Desgaitasun fisiko, psikiko edo sentsorial bat izatea, eta Desgaitasun Ziurtagiria, lurralde-erakunde eskudunak egina, eta bertan adierazita egotea desgaitasun mota eta gradua, eta hala behar bada mugikortasun urri iraunkorra duela.

d) Ez izatea 21 urte beteta 2019ko abenduaren 31n.

e) Desplazamenduetan ezin izatea Hezkuntza Sailak antolatutako eskola-garraioa erabili.

f) Ezin du ikastetxera joan doako garraioan edo Hezkuntza Saileko erakunde publiko edo pribatuek erabat diruz lagundutako garraioan.

g) Arauz zehazten den bezala beteta eta eguneraturik izatea indarreko xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

h) Egunean izatea dirulaguntzak itzultzeko ordainketa-betebeharrak, erregelamenduz zehazten denarekin bat etorritik.

Betekizun horiek mantendu egin beharko dira esleitutako zenbatekoaren ordainketa likidatu arte.

2.– Eskatzaileek onuradun izateko debekuren bat ez daukatela justifikatu ordez erantzukizunpeko adierazpenak aurkez ditzakete.

4. artikulua.– Laguntzen zenbatekoa.

Ikasleek jasotzen dituzten 2019-2020 ikasturterako banakako dirulaguntzek garraioaren kostu osoa estali ahal izango dute.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ezartzeko erreferentziazat hartuko den kostua honako arau hauei jarraikiz kalkulatu da:

a) Etxebizitzaren eta ikastetxearen arteko desplazamendurako zerbitzu publikoa (autobusa, tren, tranbia, metroa) erabiltzen bada, ematen den esleipenaren zenbatekoa garraio ekonomikoari dagokion kostua izango da, kontuan hartuko dira eguneko bi bidaiak, salbu eta ez badago jangelako zerbitzurik edo erabiltzen ez bada; kasu horretan, eguneko, gehienez, lau bidaiak zenbatuko dira.

b) Ikasleak taxiz egiten badu bidaia, taxilariak aurkeztutako aurrekontua, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak baimendutakoa, izango da erreferentziako aurrekontua. Onuradunak hiru aurrekontu eskatuko dizkie taxilari desberdinei; hiru horietan merkeenari emango zaio baimena. Aurrekontuak, onartua izateko, ikaslerik eskolara garraiatzen ez den egunengatiko murrizketa jaso beharko du.

c) Ikastetxeak antolatzen badu taxi- edo autobus-desplazamendua, erreferentziako kostua ikastetxeak ikasleari garraio-gastuengatik kobratzen dion zenbatekoa izango da. Horrelakoetan, desplazamendua antolatzen duen ikastetxeak jaso beharko du Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzaren baimena. Ikastetxeak hiru aurrekontu eskatuko dizkie zerbitzu-emaile desberdinei; hiru horietan merkeenari emango zaio baimena.

d) Etxebizitzaren eta ikastetxearen artean desplazatzeko ibilgailu partikularra erabiltzen den kasuan, esleipenaren zenbatekoa honela kalkulatu da: etxebizitzaren eta ikastetxearen arteko ibilbide laburrenaren kilometro kopurua bider 0,29 euro, bider eguneko bidaia-kopurua (gehienez, eguneko lau bidaia, salbu eta ikasleak ikastetxeko jangela erabiltzen badu, kasu horretan, eguneko bi bidaia zenbatuko dira), bider eskola-egunak.

Ibilbidearen km x 0,29 euro x bidaia-kopurua (2 edo 4) x eskola-egunak.

e) Dagokion Berritzeguneko hezkuntza-premia berezietako aholkulariak adierazita, autobusez, trennez, tranbiaz edo metroz ikastetxeraino egindako desplazamenduetan ikasleari senide edo helduren batek lagundu behar badio, laguntzailearen txartelaren kostua eskabidean sartu ahal izango da. Eguneko gehienez laguntzailearen bi bidaia hartuko dira kontuan, baldin eta benetan egiten badira.

5. artikulua.– Dirulaguntzen bateragarritasuna.

Deialdi honen babesean ematen diren dirulaguntzak bateragarriak dira beste edozein erakunde publiko edo pribatuk helburu berarekin emandako beste edozein laguntzarekin. Dirulaguntzaren zenbatekoa ezin da izan, ezein kasutan, bera bakarrik edo beste batzuekin batera, 2019-2020 ikasturtean ikasle eskatzailearen eskola-garraioaren kostua baino handiagoa izan; dena dela, komunikatu egin beharko dute zirkunstantzia hori, eta gainfinantzaketarik izan bada, neurritz kanpo jasotakoa itzuli egin beharko dute.

6. artikulua.– Eskaeren aurkezpena.

1.– Agindu honetako I. eranskineko ereduaren arabera beteko dira laguntza-eskabideak, eta deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasi eta 2019ko irailaren 16ra arte aurkeztu beharko dira, ikasleak ikasten ari diren ikastetxeetako zuzendariari zuzenduta, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aipatutako edozein bulegotan edo Eusko Jaurlaritzako Herritarren Arretarako edozein bulegoetan (Zuzenean) aurkez daitezke eskabideak; hona hemen helbideak: Kale Nagusia 85, 48011 Bilbao, Bizkaian; Andia kalea 13, 20003 Donostia, Gipuzkoan eta Ramiro Maeztu kalea 10 beheka, 01008 Vitoria-Gasteiz, Araban.

2.– Eskaera ikasleak sinatuko du, heldua bada, eta adingabea bada, gurasoek, tutoreak edo legezko ordezkariak.

3.– Eskabideak aurkezteak esan nahi du berariaz eta formalki onartu direla deialdi honen oinarrietan zehaztutako baldintzak, eta, era berean, eskabidea aurkeztuta baimena ematen zaio ikaslea matrikulatuta dagoen ikastetxeko zuzendariari ikaslearen ordezkari gisa jardun dezan garraiorako banakako dirulaguntzak esleitzeko izapidetze-prozeduran.

4.– Eskabidean erantzukizunpeko adierazpen bat dago, zeinetan eskatzaileak honako hau ziurtatzen baitu:

a) Eskabideko eta harekin batera doan dokumentazioko datuak egiazkoak direla eta dirulaguntzen onuradun izateko deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen dituela.

b) Ez izatea dirulaguntzak edo laguntza publikoak jasotzeko zehapenik zigor- eta administrazio-arloan, eta ez izatea laguntzak jasotzeko legezko debekurik, ezta sexua bereiztearren eragindakorik ere, betiere otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakume eta Gizonen Berdintasunari buruzkoak, azken xedapenetatik seigarrenean xedatutakoaren arabera.

c) Dirulaguntzei buruzko 2013ko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua 2. zenbakian azaldutako egoeraren batean ez egotea.

5.– Eskabidearekin batera desgaitasun-ziurtagiria aurkeztuko da, desgaitasun-mota eta desgaitasun-gradua adierazita, eta, era berean, kalkulaturako garraioaren kostuaren aurrekontua aurkeztuko da.

6.– Eskatzaileek eskabidea eta dokumentazioa euskaraz edo gaztelaniaz aurkez dezakete, nahi duten eran. Halaber, prozedura osoan zehar, eskatzaileak hautatzen duen hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeari buruzko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan xedatzen den moduan.

7. artikulua.– Eskabideak zuzentzea.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eskabidean edo harekin batera aurkeztutako dokumentazioan forma-akatsak edo omisioak atzeman ez gero (halakorik aurkeztu bada), interesdunari jakinaraziko zaio gehienez 10 egun balioduneko epea duela akatsa zuzendu edo falta den agiria ekartzeko. Ohartaraziko zaio, halaber, hala egin ezean, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, ebazpena aipatutako legearen 21. artikuluan aurreikusitako baldintzetan eman aurretik.

8. artikulua.– Eskabideak aurkezteko ezohiko epea eta emandako kopurua berrikustea.

1.– Behin 6. artikuluko lehenengo apartatuan ezarritako epe orokorra igarotzen denean, ikaslea honako egoera hauetakoren batean dagoenean bakarrik eskatu ahal izango dira laguntza-eskabideak:

a) Ikastetxeko matrikulazioa eskabide-epea igaro ondoren egin da.

b) Bat-batean gertatutako egoerak (istripua, gaixotasun larria), eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren sortutakoak, baldin eta ohiko eskola-garraioa modu iraunkorrean erabiltzea eragozten badute.

Eskabidea egiteko, 6. artikuluan esandakoari jarraitu behar zaio, eta hilabeteko epean aurkeztuko da, bat-bateko egoera hori gertatu eta hurrengo egunetik aurrera.

2.– Garraiorako banakako dirulaguntzaren onuradunak laguntza osagarria eskatu ahal izango du emandako zenbatekoaren eta zerbitzuak izan duen azken kostuaren arteko aldeagatik, baldin eta garraio-mota aldatzea eragin duten bat-bateko egoera horiek gertatu badira, eta garraio ez-egokitu behar izatetik garraio egokitua behar izatera igaro bada. Eskabidearekin batera, bat-bateko egoera horien egiaztagiria, garraio egokitua behar duela justifikatzen duen agiria eta garraio horren gutxi gorabeherako aurrekontua aurkeztu beharko dira.

3.– Eskabideak ikaslea matrikulatuta dagoen ikastetxeko zuzendariari aurkeztu beharko zaizkio. Eskabide berriak eta laguntza osagarriako eskabideak aurkezteko ezohiko epea 2020ko apirilaren 30ean amaituko da.

9. artikulua.– Eskaerak izapidetzea.

1.– Ikastetxeek fitxategi elektronikoko batean jasoko dituzte eskabideak, eta Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzako Hezkuntza Bereziko Zerbitzura bidaliko dituzte, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hamar eguneko epean, honako helbide elektronikoko hauen bidez:

– Itunpeko ikastetxe pribatuek ikasleen ordezkari gisa jardungo dute, eta Eusko Jaurlaritzako egoitza elektronikokoan aurkeztuko dituzte eskabideak, honako helbide honetan: https://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion/2018/transporte_nee/y22-izapide/es

Eskabidea egin ondorengo izapideak Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikokoaren «Nire kudeaketak» izeneko atalaren bidez egingo dira: <https://www.euskadi.eus/nirekudeaketak>

– Ikastetxe publikoek ikasleen ordezkari gisa jardungo dute, eta ikastetxe publikoen zuzendariak «Herri-ikastetxeak/Deialdiak» atariaren bidez aurkeztuko dituzte eskabideak (<https://educacion.hezkuntza.net/group/deialdiak/>).

10. artikulua.– Kudeaketa-organoa.

Laguntza horiek kudeatzeko organo eskuduna Hezkuntza Saileko Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria da.

11. artikulua.– Ebazpen-proposamena.

1.– Hezkuntza Bereziko lurralde-teknikariek aztertuko dituzte eskabideak, deialdi honetako 3. artikuluan ezarritako betekizunak betetzen dela egiaztatzeko. Horretarako, Berritzeguneak babes-zerbitzuetako hezkuntza-premia berezien aholkularitzei behar diren txostenak eskatu ahal izango dizkie, baita Saileko bestelako unitate teknikoekin ere.

2.– Azterketaren ondoren, zerbitzu nagusiei lurralde bakoitzeko proposamenak bidaliko zaizkie, Hezkuntza Berriztatzeko lurralde-arduradun bakoitzaren oniritziarekin.

3.– Zerbitzu zentralak lurralde-proposamenak aztertuko dituzte, eta ebazpen-proposamena Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariari bidaliko diote. Proposamen horretan, batetik, ikastetxe bakoitzean dirulaguntza emango zaien ikasleen zerrenda egongo da, emandako laguntzaren guztizko zenbatekoa adieraziz. Bestetik, dirulaguntza ukatu zaien ikasleen zerrenda egongo da, ikastetxeen arabera sailkatuak eta ukatzeko arrazoia adierazita.

12. artikulua.– Prozedura ebaztea.

1.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta sei hilabetera ebatziko du deialdia Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak.

2.– Deialdi honen ebazpena <https://euskadi.eus> web-orriaren iragarki-ohol elektronikokoan argitaratuko da, ikastetxe bakoitzeko eskatzaile guztiei emandako zenbatekoak adierazita.

3.– Aurrekoa eragotzi gabe, ikasle eskatzaileak matrikulatuta dauden ikastetxeetako zuzendariari bidalitako komunikazioaren bidez, laguntzen ebazpenaren berri emango da eta eskatzaile bakoitzari emandako zenbatekoa zehaztuko da, edo, hala badagokio, zergatik ukatu zaion adieraziko da.

4.– Lehenengo atalean aurreikusitako epe horretan jakinarazpenik eman ezean, eskabideak ezetsi egin direla ulertu ahal izango da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea-ren urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

5.– Ebazpenak ez du agortuko administrazio-bidea; eta, haren aurka, gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

13. artikulua.– Laguntza ordaintzea.

Eskola-garraiorako 2019-2020 ikasturterako banakako laguntzak bi zatitan ordainduko dira, ikasleak dauden zentroen bidez, eta honako aurreikuspen hauen arabera egingo da:

– Lehenengo zatia, dirulaguntzaren zenbateko osoaren % 73, deialdiari buruzko ebazpena jakinarazi eta hilabeteko epean egingo da, tartean laguntzari berariaz uko egin ezean.

– Bigarren zatian gainerakoa ordainduko da, ikasturtea amaitu ondoren eta 15. artikuluan (laguntzaren justifikazioari buruzkoa) ezarritakoaren arabera.

14. artikulua.– Onuradunaren betebeharrak.

Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50.2 artikulua eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. eta 46. artikuluetan jasotzen dituen betebeharrak gorabehera, agindu honetan arautzen diren dirulaguntzen onuradunek betebeharrak hauek izango dituzte:

a) Esleitutako dirulaguntza onartzea. Ildo horretan, onartzen dela ulertuko da, salbu eta erakunde onuradunak berariaz eta idatziz uko egiten badio ebazpena argitaratu eta hamar egun balioduneko epean.

b) Dirulaguntza eman den xederako erabiltzea.

c) Hezkuntza Saileko Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzari jakinaraztea dirulaguntza emateko eskatutako betekizunei edo kostuei buruzko edozein gorabehera; batez ere, erakunde publiko edo pribaturen batek beste laguntzarik eman dien helburu bererako; eta, era berean, gainfinantza-ketarik egon bada, gaindikin hori itzuli egin beharko dute.

d) Dirulaguntza eman zaion jardueraren izaera edo helburuan funtsezko aldaketa eragiten duen gorabehera ororen berri ematea, eta, lurralde-ordezkaritzek, Kontrol Ekonomikoko bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak beren eginkizunetan dihardutela deialdi honen kontura eskuratutako dirulaguntzen gainean eskatzen dieten informazioa ematea.

15. artikulua.– Laguntza justifikatzea.

1.– Ikastetxeetako zuzendariak onuradunei eskatuko die, ikasturtea amaitutakoan eta 2020ko uztailaren 1a baino lehen, dirulaguntzaren zenbatekoa justifikatzeko garraio-ordainagiriekin. Justifikatzeko agiri horiek (tiketak, taxilarien fakturak, eskola-garraioko ordainagiriak, etab.) ikastetxean artxibatuko dira, geroago egiaztatu ahal izateko.

2.– Kontuan izanik aurkeztutako justifikazio-dokumentazioa eta ikasleak izan dituen aste batetik gorako asistentzia-faltak edo, halakorik bada, ikastetxean baja eman zuen data, ikastetxeetako zuzendariak 2020 ko uztailaren 15a baino lehen bidaliko diote Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzari emandako dirulaguntzaren gain gutxitze bat aplikatu behar zaien ikasleen zerrenda eta zenbatekoa ere adieraziko dute, onuradunari dirulaguntza osorik edo partzialki itzultzeko eskatzeko prozedura has dadin.

16. artikulua.– Dirulaguntzaren baldintzak aldatzea.

Laguntza emateko kontuan hartutako baldintzetakoren bat aldatzen bada, jakinarazi egin beharko da, eta gerta liteke horren ondorioz laguntza emateko ebazpena ere aldatzea, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17. eta 19. artikuluetan eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 64. eta 86. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz (errege-dekretu horrek Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko Erregelamendua onartzen du).

17. artikulua.– Ez-betetzeak.

Dirulaguntzen onuradunek, nolnahi ere, Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuen kargurako laguntza publikoak erabiltzeagatik ezartzen den zehapen-araubideari eutsi beharko diote, eta –Diru Laguntzei buruzko Lege Orokorren 37. artikuluan ezarritakoa aplikatuz– honako kasu hauetan, berriz, eman eta jasotako zenbatekoa itzuli beharko dute, baita dirulaguntzen arloan aplikatzekoa den berandutze-interesa ere:

– Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 37. artikuluen 1. zenbakian jasotako itzulketa-kausaren bat denean.

– Dirulaguntza erabiltzen ez denean eskatu eta eman zen helburu zehatzerako.

– Dirulaguntza eragin zuen jarduera burutzen ez denean.

– Justifikatzen ez denean dirulaguntza erabili dela eman ziren helburu zehatzetarako.

– Oro har, betetzen ez direnean azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren VI. tituluaren ezarritako obligazioak (1998ko urtarrilaren 19ko EHAA), agindu honetan ezarritakoak edo dirulaguntza emateko ebazpenean ezarritakoak.

18. artikulua.– Itzulketak.

Itzulketarako, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan horretarako ezarritako prozedura beteko da –dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen da eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dira–, hargatik eragotzi gabe erabil daitezkeen gainerako akzioak. Bestalde, aipatutako zenbateko horiek diru-sarrera publikotzat joko dira, legezko ondorio guztietarako.

19. artikulua.– Datuen babesa.

Deialdi honetako parte-hartzaileek baimena ematen dute deialdi hau izapidetzean jasotako datu pertsonalak tratatu eta argitaratzeko, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 13ko 3/2018 Lege Organikoarekin eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorriz. Datuok, bestalde, «Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzako prestakuntza- eta berrikuntza- proiektuak» izeneko fitxategi batean sartuko dira, 19. zenbakiaz, dirulaguntzen deialdi hau kudeatzeko eta deialdira biltzen direnei deialdiaren garapenaren berri emateko. Fitxategi horren arduraduna Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza da. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak baliatzeko, Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzara jo beharko da (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

2019ko uztailearen 3a, asteazkena

Halaber, deialdi honetara biltzen diren pertsonak baimena ematen diote Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzari beste erakunde publiko batzuetan egiazta dezan aurkeztutako agiriak benetakoak direla.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, interesdunek aukurako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango diote Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua argitaratu eta biharamunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko ekainaren 12a.

Hezkuntzako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

2019ko uztailaren 3a, asteazkena

I. ERANSKINA
 ESKOLA-GARRAIORAKO BANAKAKO DIRULAGUNTZAK
 ESKABIDE-EREDUA

ESKATZAILEAREN DATUAK:

..... jaunak/andreak
 (NAN zk.:), (izen-abizenak)
 ikaslearen aita/ama/tutore/legezko ordezkari gisa,
 Jaiotza-data:
 Ikastetxea:
 Etapa: Maila:
 Helbidea (kalea, zk., pisua...):
 Udalerria:
 Lurraldea: Telefono-zenbakia:

ESKATZEN DU (bietako bat markatu, edo biak, hala badagokio):

Garraiorako banakako dirulaguntzak 2019-2020 ikasturtean

- Erabilitako garraioa eta eskatutako zenbatekoa (etxetik ikastetxera bitartean dagoen merkeena):

Garraio publikoa	
	Tranbia
	Metroa
	Trena
	Taxia
	Autobusa

Ibilgailu partikularra

- Familiaren etxetik ikastetxera dagoen distantzia: (kilometroak ibilbide bakoitzeko).
- Zenbat bidaia eguneko:
- Eskola-jantokia erabiltzen duen (Bai / Ez):
- Bidaien eguneko kostua guztira:€

2019-2020 IKASTURTERAKO GUZTIRA ESKATUTAKO DIRULAGUNTZA:€

LAGUNTZAILEENTZAKO banakako dirulaguntzak 2019-2020 ikasturteko garraioan
--

- Erabilitako garraioa eta eskatutako zenbatekoa (etxetik ikastetxera bitartean dagoen merkeena):

Garraio publikoa	
	Tranbia
	Metroa
	Trena
	Autobusa

- Zenbat bidaia eguneko:
- Bidaien eguneko kostua guztira:€

LAGUNTZAILEENTZAKO 2019-2020 IKASTURTERAKO GUZTIRA ESKATUTAKO
 DIRULAGUNTZA:€

ESKATZAILEAK HONAKO HAU ADIERAZTEN DU:

- a) Deialdi honetan onuraduna izateko baldintzak betetzen dituela.
- b) Ez duela Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 13.2 artikuluan ezarritako debekurik, eta ez duela dirulaguntzak jasotzeko legezko debekurik bere gain –Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenean zigortutako sexuagatiko bereizketaren ondoriozkoak barne–.
- c) Dirulaguntzak itzultzeagatiko betebeharren ordainketa egunean duela, araudiaren arabera zehazten den moduan.
- d) EZ DITUELA ESKURATU / ESKURATU DITUELA helburu bererako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo bestelako bitartekoak edozein administrazio zein erakunde publiko nahiz pribatutatik. Baietz bada, adierazi zenbat eta zein erakundetatik:
.....
- e) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela eta baimendu egiten duela Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza zuzenean lor dezan, ziurtagiri telematikoen bidez, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela adierazten duen egiaztagiria. Azken kasu horretan, eskatzaileak berariaz ukatu ahal izango du baimena, baina dagokion ziurtagiria aurkeztu beharko du.
- f) Egunean dituela itzultzeagatiko betebeharrak.
- g) Badaukala honen berri: deialdi honetako parte-hartzaileek baimena ematen dutela deialdi hau izapidetzean jasotako datu pertsonalak tratatu eta argitaratzeko, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 13ko 3/2018 Lege Organikoarekin eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorritik. Datuok, bestalde, «Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzako prestakuntza- eta berrikuntza- proiektuak» izeneko fitxategi batean sartuko dira, 19. zenbakiaz, dirulaguntzen deialdi hau kudeatzeko eta deialdira biltzen direnei deialdiaren garapenaren berri emateko. Fitxategi horren arduraduna Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza da. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak baliatzeko, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzara jo beharko da (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).
- h) Baimena ematen diola Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzari beste erakunde publiko batzuetan egiaztatu dezan aurkeztutako agiriak benetakoak direla.

Eskabide honekin batera honako hau aurkezten dut:

.....(Bai / Ez) Eskumena duen lurralde-organismoak emandako desgaitasun-ziurtagiria, zeinetan eskatzailearen desgaitasun-mota eta desgaitasun-gradua adierazten baita.

.....(Bai / Ez) taxista bat baino gehiagoren aurrekontuak.

Inprimaki honetan jasotako datuak eta informazioak eta erantsitako agiriak egiazkoak dira.

....., 20...koarena.

Eskatzailearen sinadura.

Sin.:

HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO ZUZENDARIA.

2019ko uztailaren 3a, asteazkena

II. ERANSKINA

ESKOLA-GARRAIORAKO BANAKAKO DIRULAGUNTZAK; 2019-2020KO DEIALDIA

Zuzendaria:; Ikastetxea:; Ondoren adierazitako ikasleentzako garrarorako banakako dirulaguntzen eskabideak bidaltzen ditu zuzendaria; ikastetxearen kodea:; Lurraldea:

ESKOLA-GARRAIORAKO BANAKAKO DIRULAGUNTZAK ESKATZEN DITUZTEN IKASLEEN ZERRENDA; IKASTEIXE HONETAN MATRIKULATUTA DAUDENAK

Abizenak eta izena	Etap ⁽¹⁾	Etxetik ikastetxera bitarteko ibilbidearen distantzia (km)	Eskatutako garraio mota ⁽²⁾	Eguneko zenbatekoa	Egun-kopurua eskola-egutegiaren arabera	2019-2020 ikasturterako eskatutako dirulaguntzaren zenbatekoa	Desgaitasun-ziurtagiria ⁽³⁾	Etxebizitzaren arabera edo Lurralde Ordezkaritzak esleitzeagatik dagokio ikastetxea ⁽⁴⁾	HPB aholkularitzaren balorazioaren arabera, ezin du ohiko garraraoa erabili ⁽⁴⁾

(1) Ikaslea Haur Hezkuntzan eskolatuta badago H jarriko da, Lehen Hezkuntzan badago B, Bigarren Hezkuntzan badago B. Gainontzeko kasuetan O jarriko da.

(2) GARRAIO MOTA

- a) Garraio publikoa
- b) Ibilgailu partikularra
- c) Biak
- d) Taxia
- e) Ikastetxearen autobusa

(3) Desgaitasun-ziurtagiria aurkeztu bada, P jarriko da psikikoa bada, F jarriko da fisikoa bada (F-MU), mugikotasun urri iraunkorra bada, eta S sentensoriala bada. Bat baino gehiago badaude, larriena adieraziko da. Ez bada ziurtagirik aurkeztu, laukia hutsik utziko da.

(4) Adierazi BA1 edo EZ.

....., 20...koarena.

Sin.:
(Ikastetxeko zuzendaria)

HEZKUNTZA ORDEZKARITZA
HEZKUNTZA BERRITZATZEKO ZERBITZUA